

**EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO EKIPO ETA
APLIKAZIO INFORMATIKOAK EROSI ETA MANTENTZEKO KONTRATUA ESLEITZEKO
EBAZPENA**

AURREKARIAK

I.- Dokumentu honen izenburuak aipatzen duen ekipo eta zerbitzuak egiteko kontratua esleitzeko kontratazio-espeditentea publikitate gabeko prozedura negoziatuaren arabera izapidetu da, sektore publikoaren kontratuen arloan indarreko araudiari jarraikiz.

II.- Lizitatzailer guztiak baldintzen pleguan eskatutako gaitasun eta kaudimen baldintzak bete dituzte, eta, beraz, eskaintza guztiak onartu eta balioztatu egin dira.

III.- Kontratazio organoak proposamen guztiak aztertu ditu administrazio klausulen eta preskripzio teknikoaren pleguko balorazio irizpideen arabera. Ondorioz, Sarein Sistemas, S.L.k aurkeztutako eskaintza izan da balorazio onena lortu duen eskaintza.


EBAZPENA

Aurreko guztia kontuan hartuta, EEGABeko Batzarde Iraunkorrek honako hau onartu du 2017ko otsailaren 3an egindako bileran:

1.- Ekipo eta aplikazio informatikoak erosi eta mantentzeko kontratua esleitzea **Sarein Sistemas S.L.**ri, eta, horretarako, BERROGEITA HAMALAU MILA BERREHUN ETA HOGEITA SEI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (54.226,8 €), gehi % 21eko BEZa ematea.

2.- Esleipena EEGABren Kontratatzaileraren Profilean argitara dadin xedatzea eta ebazpena prozedura honetan parte hartu duten hiru eskaintzaileei jakinaraztea.

Bilbon, 2017ko otsailaren 3an



Francisco José Huidobro

EEGABeko presidentea